


Oroitidazkia 2011

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA
OGASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA

aurkibidea


1. Zehapen espedienteak.....	3
2. Sustapen jarduerak.....	5
3. Elkarlana beste erakunde ofizialekin	6
4. Araugintza.....	7
5. Mintegi, jardunaldi eta biltzarrak	8




1. zehapen espedienteak

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak, LDEZk, 12 espediente izapidetu ditu 2011. urtean.

Hasitako espedienteen kopurua



Sektoreak



2011n hasitako espedienteen ibilbidea honelakoa izan da:

☞ LDEAri artxibatze proposamena, arau-hausterik antzeman ez delako	3
☞ LDEAri itundutako amaieraren proposamena	1
☞ LBNren eskumena	5
☞ Izapidetze lanetan	2
☞ Izapidetza ezestea	1

Artxibatze proposamenen artean, LDEZk Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari, LDEAri, proposatu zion sustapen jarduerak egitea, hain zuzen, kontratazio prozeduren diseinu, garapena eta gauzatze jardueretan lehia sustatzeko.

Era berean, Zerbitzuak 2007., 2009., eta 2010. urteetan hasitako 6 espedienteren izapideak amaitu ditu.

LDEZk amaitutzat eman du 2007an hasitako espedienteen LDEAk agindutako jarduera orokorra, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan jardunean diren lanbide elkargoen estatutuak, akordioak, erabakiak eta gomendioak Lehiaren Defentsari buruzko Legearen xedapenetara egokitzekoa. Besteak beste, LDEZk 62 Elkargo eta Kontseiluren araudiari buruzko txostenak prestatu ditu, eta erakunde horietatik 15ek euren estatutuak aldatu dituzte, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

2009. jardunaldiari dagokion espedienteen, zehapen prozedura iraungitzat izatea proposatu zaio LDEAri, LDEZk bidalitako espedientea horrek itzuli ondoren.



2010ean hasitako 4 espedienteei buruz:

- Espediente batean Zerbitzuak LDEAri proposamena luzatu dio Lehiaren Defentsari buruzko Legeak debekatutako lehia murrizten duten jokabideak izan zirela ebazteko.
- 3 espedientetan, Zerbitzuak zehapen espedienterik ez hastea proposatu dio LDEAri. Espediente horietako batean sustapen jarduerak egiteko eskaera luzatu zaio LDEAri, arau batek merkatuan sartzeko ezarritako oztupoak kentzeko.

Horrez gain:

- 2009ko espediente bat dela eta, LDEAk agindutako frogak egin ditu Zerbitzu honek.
- LDEAk ezarritako hainbat zehapen bete diren zaindu du Zerbitzuak.

2. sustapen jarduerak

Honako elkargo hauen estatutuei buruzko txostena eman dugu:

1. Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
3. Arabako Sendagileen Elkargo Ofiziala
4. Bizkaiko Psikologoek Elkargo Ofiziala



Zerbitzuak azterlan juridiko eta lehiako hau berrikusi eta formatu digitalean argitaratu du: *Competencia, regulación y oficinas de farmacia en la Comunidad Autónoma de Euskadi*.



3. elkarlana beste erakunde ofizialekin

📌 Lehiaren defentsarako erakundeak

📅 2011ko apirilaren 13an eta uztailaren 20an, Sevillan eta Madrilan, hurrenez hurren, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua 1/2002 Legearen arabera



LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL ZERBITZUA

espedienteak esleitzeko irizpidetarako Lan Taldearen batzarretan izan zen. 2010eko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra eta 2011ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era egindako esleipenak arakatu ziren bilera horietan. Bestalde, Lehiaren Defentsarako Kontseiluak onartutako dokumentu hauen prestaketan parte hartu du: *“Informe preceptivo del artículo 5.4 de la Ley 1/2002 y 58.2 de la Ley 15/07”* eta *“Mecanismo de asignación/reasignación: tratamiento e inclusión en el procedimiento principal”*

📌 2011ko apirilaren 13an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak parte hartu du Koordinaziorako Lan Taldeak Sevillan antolatutako batzarrean. Bertan, honako gai hauek landu ziren: elkargo profesionalak; itundutako amaiera; Administrazioa eta LDLren aplikazioa; eta zaintza lanak.

📌 Sailarteko erakundeak

📌 LDEZk Erregulazioa Hobetzeko Batzordean, CMR delakoan, parte hartu du. Batzorde horren helburua da zerbitzu jardueri dagokien erregulazioa hobetzeko administrazio arteko lankidetzari laguntzea, batez ere, Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizio zuzenerako ekin behar diren jardueren jarraipena eta koordinazioa. Helburua helburu, honelako zerbitzuen kasuistika sakon aztertu dira: turismo bitartekaritza, ehun denda txiki bat zabaltzea, elkargoen ikus-onespena eta udalek esku hartzeko bideak.

4. araugintza

Zerbitzuak parte hartu du Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen aurreproiektuaren izapidetzean.



5. mintegi, jardunaldi eta biltzarrak

Zerbitzuko teknikariak honako jardunaldi hauetan parte hartu dute:

- ⇒ Midac Proiektuaren Emaitzak (merkatuen lehia maila neurtzeko proiektua) 2011ko urtarrilaren 14an Bilbon –Sarriko– UPV/EHUko Ekonomi eta Enpresa Zientzietako Fakultatean izandakoa.
- ⇒ Lehia Euskadin V. Jardunaldia *Jatorrizko deiturak eta Lehiaren Zuzenbidea*, 2011ko martxoaren 28an Guardian (Arabian) izandakoa.
- ⇒ Lehiaren Defentsarako V. Nazio Jardunaldiak, 2011ko apirilaren 14an eta 15ean, Sevillan, Lehiaren Defentsarako Andaluziako Agentziak antolatuta.
- ⇒ *Lehia politikaren erronka berriak: Osasun kudeaketa, Lan hitzarmenak eta Nazioarteko ikuspuntua*, Euskal Herriko Unibertsitateko 2011ko Uda Ikastaroa, ekainaren 27tik 29ra bitartean Donostia-San Sebastian hirian egindakoa.

